

HARKAITZ ALLUR

Orain arte Oñatiko Inauterietan entzun izan direngandik ezberdina ei da. Ze berezitasun ditu? Zertan inspiratu zara pieza sortzeko?

Kantu bat sortzeko pentsaeran hasten naizenean niretzat garrantzi handia dute matiz txikiak; kantu bakoitzak bere esentzia eta ezaugarriak izan behar ditu, eta horretarako ezinbestekoa da sortze garaian horretan pentsatzea, doinu eta erritmo formula egoki batekin konbinatzea alegia. Kasu honetan dantzariak izan ditut batez ere kontzientzia, jai giroa, eta aldi berean desfile batean antzezle eta ikuslegoaren artean bizitzen diren momentu horietako sentsazioek inspiratu naute doinu berri hau emateko. Kantua alaia da, jostagarria, baina aldi berean badu nostalgia une bat ere bere zati batean.

Goiena.eus 2017-02-24

XABI SOLANO

Itxuraz maitasun kantua dena, baina bestelako maitasun bat da Etzakit taldearen "izar iheskorra" doinu honek jasotzen duena. Doinua alaia da baina biltzen duen istorioa ez da batere alaia... Askorentzat parrandarako kantua izan da eta Xabik ez zuen ulertzen nola zitekeen kantu hau jendearentzat dantzan hasteko modukoa izatea.

Nafarroan jo genuen eta handik bueltan etxera iritsi eta notizi triste bat etorri zitzaigun; kuadrilako bi lagun auto istripu batean hil zirela. (...) Jon Mari eta bien lagunak ziren, oso gertakari gogorra izan zen guretzat eta hor atera zen abesti hau. (...) Bere garaian arraroa egin zitzaiten festetara joan eta kantu hau entzun behar izatea. Tabernetan kantu hau jartzen zuten bakoitzean nik ospa egiten nuen. Azkenean oroimen polit bat utzi behar da, eta abesti honek ematen duen alaitasuna ondo uztartzen da nolabait beraiek zuten alaitasunarekin.

Euskaldi Irratia, faktoria 2017-02-15

DEBAGOIENEN XIII. TRIKITIXA EGUNA

Aurtengoan Oñatin ospatuko da Debagoieneko XIII. Trikitixa eguna apirilaren 29an. Honako egitaraua izango du egunak: goizeko 10:00etan ongi etorria egingo zaie gerturatzeko direnei, ondoren tailer ezberdinak egingo dira eta jarraian hamaiketako. Tripa bete ondoren kalejira egingo da oholtzara eta 13:00etan eguerdiko saioari hasiera emango zaio. Bazkaldu ondoren, 17:00etan emango zaio hasiera arratsaldeko saioari eta festari jarraipena emateko 19:30etan elektrotarangak hartuko du lekua. Gauean Emepebost eta Zopilotes txirriaos taldeak arduratuko dira egunari bukaera ona emateaz.

ELKARTEKO BAZKIDE IZATEAGATIK DESKONTUAK

Ba al zenekien? Hemendik aurrera, Elkarteak argitaratutako liburu eta disko guztietan %15eko deskontua izango duzu bazkide izateagatik.

PERTSONAIA IZKUTUA

Nor da izkutatuta dagoen trikitilaria?



www.trikitixa.eus

Badator San Jose tako trikitijaialdia

Bertan da trikitizaleentzako urteroko hitzordu garrantzitsuetakoa. Aurtengoan, honako parte hartzaile hauek igoko dira oholtza gainera:

- Mirari Azkune eta Aintzane Agirrebeña
- Maixa, Errekalde anaiak eta Azkonobieta anaiak
- Jone Uria eta Julene Otegi
- Aire Ahizpak
- Tapia eta Leturia
- Iker Allur eta EinGO

Martxoaren 18an, arratsaldeko 17:30ean izango da zita **Azpeitiko Soreasu antzokian**. Sarrera aurretik eskuratu nahi duenak, urtero bezala aukera izango du Azpeitiko Berdie, Pastorkua, eta Mendizabal jatetxeetan eta Azkoitiko Isidro erretegian, edo 943 83 28 28 telefonora deituta (goizez) eta trikitixa@trikitixa.eus helbidera idatzita.

Sarrerak martxoaren 11tik aurrera egongo dira salgai.

Egunean bertan ere arratsaldeko 16:00etatik aurrera 100 sarrera egongo dira salgai bertako leihatilan. Erreserbak arratsaldeko 16:30ak aurretik hartu beharko dira; ordu hori baino lehen hartzen ez diren sarrerak salgai jarriko dira.



2016KO BALANTZEA ETA 2017RAKO EGITASMOAK ONARTU DITU URTEKO BATZAR NAGUSIAK

Martxoaren 4an Adunan egindako Batzar Nagusiak, iazko balantzea egin eta 2017rako egitasmoak onartu ditu. Gauzatuko diren proiektuen azalpena duzue jarraian.

- **Dokumentazio zentroa** osatzen eta aberasten jarraituko du Elkarteak, trikitixarekin lotura duen guztia gordez.
- Hainbat **trikitilarien emazteei elkarriketak** egin eta bideoz grabatuko dira.
- Soinuaren liburutegia bildumako 13. alea argitaratuko du Elkarteak: **Imanol Arregiri, Iturbideri, eskainitako liburu-diskoa** Amagoia Ibanek idatziko du.
- **Trikiti programen grabaketa.**
- **"Trikitixa eta generoa"** gaiaren inguruan **datu bilketarekin** jarraituko dugu aurten. Horretarako Elkartetik kanpoko talde baten laguntza izango dugu.
- **Partituren liburua:** zenbakiz eta solfeoz sortutako partiturekin liburua egingo da eta www.trikitixa.eus-en zintzilikatuko dira 2015ean hasitako lan ildoari jarraituz.
- **Maketa lehiaketa:** Hurrengo orrialdean dituzue xehetasun guztiak.
- **Trikiti topaketa:** Azken bi urtetako esperientzia ezin positiboagoaren ondoren, aurten ere Topaketa antolatzearabaki da. 16-20 (biak barne) urte bitarteko gazteei zuzendua dago eta ekainaren 23tik 25era burutuko dira. Berrikuntza modura aurten helduen topaketa ere antolatu da oraindik zehazteko dauden egunetan.

- **Trikiti udalekuak:** 12-15 (biak barne) urte bitarteko gazteei zuzendua dago eta ekainaren 26tik 28ra izango dira.
- **Inpernuko Poza jardunaldiak:** "Trikitixaren oraina eta geroa" izan zituzten ardatz 2016ean izandako jardunaldiek. 2017ko jardunaldien gaia zehazteke dagoen arren, Donostian izango dira iraileko lehenengo astean.
- **San Jose jaialdia:** Martxoaren 18an egingo da Azpeitiko Soreasu Antzokian. Xehetasun gehiago aurreneko orrialdean.
- Aipatutako egitasmoez gain, Elkarteak www.trikitixa.eus webgunearen, Alzaporruren eta facebook-eko hormaren bidez zabalduko du bere berri, eta jakina, trikitilari zein trikiti zaleei bere zerbitzua eskaintzeko prest izango da. Urte amaieran Durangoko Azokan ere parte hartuko du.

ZUZENDARITZA.

Zuzendaritza taldea honela geratuko da:

Lehendakaria: Agurtzane Elustondo

Lehendakari orde: Iosu Arrizabalaga "Izer"

Idazkariak: Maider Jauregi eta Andoitz Antzizar

Diruzaina: Aritz Alustiza

Bokalak: Eneko Dorronsoro, Manex Torrealdai, Añarbe Kalonje, Ion Elustondo eta Itsaso Elizagoien

MAKETA LEHIAKETA

Euskal Herriko Trikitixa Elkartearen aurten berrikuntza batekin dator: MAKETA LEHIAKETA.

Parte hartzeko baldintzak honakoak dira:

1. 25 urtetik beherako parte hartzaileei zuzendua.
2. Abestiak letrarik balu erabiliko den hizkuntza euskara izango da.
3. Abestiak inon argitaratu gabea izan behar du.
4. Abestia grabatzeko edozein instrumentu erabili liteke, baina ezinbesteko baldintza izango da tartean trikitixa edo/eta panderoa agertzea.
5. Edozein talde formatutan sortutako piezak onartuko dira: Bakarka, bikoteka, taldeka...
6. Abestia bideoz aurkeztu behar da, ahalik eta kalitate onean eta taldeko partaide guztiak zuzenean jotzen azaltzen direla.

7. Abesti guztien erabilera Euskal Herriko Trikitixa Elkartearen esku geratuko da.

HAUTAKETA:

Epaimahaia EHTEko zuzendaritzak osatuko du eta bere irizpideen arabera 10 abesti aukeratuko ditu. Hautaketa prozesuan ez da parte hartzaileen irakaslerik egongo.

SARIA: Aurkezten diren talde guztietatik 10 aukeratuko dira eta horien abestiekin CD bat grabatuko da 2017ko ekainaren erditik aurrera. Hamar talde horietako hoberenak bideo-klipa grabatzeko aukera izango du eta ondoren webberatu egingo da. Epaimahaia hala erabakiz gero saria behera gera daiteke.

IZEN-EMATEA: Bideoa trikitixa@trikitixa.eus helbidera bidali behar da 2017ko Maiatzaren 15a baino lehen. E-maila maiatzaren 31ean argitaratuko da www.trikitixa.eus webgunean.



MAIDER ZABALEGI: ZUEI

10 urtez eszenatokietatik aparte egon ondoren, Maider Zabalegi bakarkako diskoa kaleratuko du Elkar argitaletxearekin martxoaren erdi alderako. Pop lasaia izan da batez ere jorratu duen estiloa eta diskoak dituen 10 kantuetako batzuetan Alaitz Telletxearen trikiti doinuak eta ahotsak entzuteko aukera izango da. 10 urteren buruan, disko berriarekin batera Maider berriz ere eszenatokietara itzuliko da aurkezpen kontzertuak emanez eta entzuleen belarriak goxatuz.



ASIER EZAGUTUZ, HAMAIIKA KONTUZ!

ELKARRIZKETA: ASIER GOZATEGI

1. Nor da Asier Gozategi?

Trikitixarekin hazi, hezi eta pasioz bizi duen mutil bat dela esango nuke.

2. Gozategi anai-arrebak egin zineten ezagun trikiti munduan. Baina gerora anaia bat agertu zaizu....

Anaia naparra bai. Nire ibilbidean ezinbesteko bilakatu den lagun ona.

3. Aurten mende laurdena edo zilarrezko ezteiak ospatzen ditu Gozategik. Zer eman dizu 25 urte hauetan?

Hamaika bizipen ahaztezinez gain, ezagututako toki ta pertsonekin gertatzen naiz.

4. Zerbait prestatzen ari zarete urte berezi honetarako?

Saio bereziren bat edo beste eta urte bukaerarako edo, diska berri bat ere grabatzeko asmoa dugu 25. urte honetan.

5. Beste 25 urtez herriz herri jarraitzeko asmoa?

Beste 25 gutxienez.

6. Belaunaldi ezberdinetako jendea dantzan jartzen du Gozategik. Nola lortzen da hori?

Nola lortzen den ez dakit, baina gure lorpenik handienetakotzat daukat. Zoragarria da, saioetan, lehenengo lerroetan, nerabe nahiz gaztetxoak abesti guztiak dantzatzuz, abestuz ikustea eta atzerago eta alboetan jende nagusiagoa aurpegian irrifar batekin; eta zer esanik ez, denak batera, elkarri eskutik helduta, nahasian, kalejira luze bat dantzatzuz ikustea.

7. Jotzen egon ez zaren eta Gozategirekin iritsi nahiko zenukeen herri bat?

Badago oraindik jotzen izan gabeko herri ta toki asko baina ez daukat nahi berezirik.

8. Gazia ala gozoa?

Gazia.

9. Maskota bat?

Txakurra.

10. Porruptata gustoko?

Oso.

11. Amets bat?

Osasuna lagun, beste urte askotan taula gainean sentitzen dudana sentituz jarraitzea!!



HELDUEN I. TRIKITIXA TXAPELKETA

Markina-Xemeingo jai batzordeak antolatu du txapelketa hau eta finala uztailearen 8an ospatuko da 8 bikote onenekin. Izena ematen duten bikote kopuruaren arabera, 2 edo 3 kanporaketa jokatu dira ekaina amaieran. Txapelketan parte hartzeko, 22 urtetik gora izan behar dituzte trikitilari eta panderojole bikoteek. Kanporaketetan 3 pieza jo beharko dira: trikitixa, porrusalda eta fandangoa edo arin arina aukeran. Finalan berriz 4 pieza jo beharko dira: trikitixa, porrusalda, rantxera/bals edo erritmo dantzagarridun kanta bat euskarazko hitzekin eta fandango edo arin-arina aukeran. Txapeldunek 1500€ eta txapelak irabaziko dituzte, bigarren sailkatuek 900€ eta oroitgarriak, hirugarrenek 600€ eta oroitgarriak eta gainontzeko sailkatuek dietak jasoko dituzte; baita finalera sailkatzen ez diren bikoteek ere. Izena emateko 645006312 telefono zenbakira deitu edota udala@markina-semein.eus helbidera idatzi daiteke martxoaren 17a baino lehen.